

Berrigara



Gaztetxea

Gazte den-den-denen etxea



RENAULT

AUKERA EZIN HOBEA



MEGANE RXE 1.6 16v 110CV

Aire girotua, ABS
Aurreko airbagak eta
aldemenetakoak
Aluminiozko hagnak
Pintura metalizatua
SAT irratia

2.150.000 pezeta*

12.921,76 euro*

5 AUTO AUKERAN



MEGANE CLASSIC RXE 1.6 16v 110 CV

Aire girotua, ABS
Aurreko airbagak eta aldemenetakoak
Aluminiozko hagnak
Pintura metalizatua
SAT irratia

2.185.000 pezeta*

13.094,81 euro*

7 AUTO AUKERAN

Orain, éstra guztiak
seriekoak dira

Bilatu zure izarra



SCENIC RXI 2.0 16v 140 CV

Aire girotua, ABS
Aurreko airbagak eta
aldemenetakoak
Aluminiozko hagnak
Pintura metalizatua
CD kargagailua

2.675.000 pezeta*

16.077,07 euro*

5 AUTO AUKERAN



CLIO RT 1.9 DIESEL 5 ate

Aurreko airbagak.
Lagunduriko direkzioa
Itxigailu zentralizatua
Kristal-jasogailu elektrikoa

1.550.000 pezeta*

9.315,69 euro*

6 AUTO AUKERAN



LAGUNA RXE 1.9 DCI 105 CV

Klimatizagailua, ABS
Aurreko airbagak eta
aldemenetakoak
Aluminiozko hagnak
Pintura metalizatua
CD kargagailua
Narruzko eserlekuak

3.225.000 pezeta*

19.382,64 euro*

7 AUTO AUKERAN



SCENIC RX4 2.0 16v 140 CV

Klimatizagailua, ABS,
Trakzioa lau gurpiletan
Aurreko airbagak eta
aldemenetakoak
Aluminiozko hagnak
Pintura metalizatua
CD kargagailua

3.325.000 pezeta*

19.382,64 euro*

6 AUTO AUKERAN

*Prever plana barne

MECA

Erakusketa eta tailerra: Amillaga, 5. BERGARA. Tel. 943 76 40 68

Erakusketa eta tailerra: San Andres auzoa. ARRASATE. Tel. 943 71 24 72



Mundua ez da horren borobila

Jon Altuna / Kazetaria

Mende berrian sartu gara, baina gauzak ez dira aldatu; milurteko berria hasi dugu, baina aurreko mendeko injustiziei aurre egin beharrean gara; honetan konpondu behar aurrekoan gaizki egin dena, bestela, akabo. Mundua beti bueltaka, baina bere arazoei ez die bueltarik ematen. Oraindik pertsonak pertsona, aberatsak pobrea, haundiak txikia, lehenak hirugarrena... esplotatzen badu, nola ez ditu ba esplotatuko lurrazpia, ingurua, animaliak... Munduko aberastasuna, baliabideak, agortu egingo dira gauzak aldatu ezean.

Balkanetan izan ziren militarrek osasun arazoak baldin badituzte, nola egongo ote dira uranio pobretuaren eragina zuzenean jasan zuten bosniarrak eurak, edo duela hamar urte antzeko armen ondorioak jasan zituzten irakiarak? Iritzi publikoan kezka sortu dute militar gaixoek, eta ni benetan kezkatzen nautenak Iraken edo Bosnian bizi direnak dira. Behi eta zezen zoroena ere hor dago, eta sagardotegi garaia dator, je, je. Behiak beti zelaian

belarra jaten ikusi ditugu, eta orain jakin dugu animalien hondakinekin egindako pentsuak ematen zizkietela batzuk, erreziklajea ote? Benetan sano ez dagoena hori asmatu zuena eta pentsu hori behiari eman diona da. Hirugarren, laugarren... munduan ez dute horrelako arazorik behi zoroekin. Han HIESari ihes egin ezinik dabilta. Eta oraindik goseak hiltzen dira. Guk soberan duguna nahiko lukete. Europara etorri beharrik gabe, hemen, paperik gabe, esklabuen antzera, hilero lau pa-

pel ziztrin irabazteko goizetik gauera lan eginez. Behiak eroak, barazkiak transgenikoak, animaliak desagertzeko arriskuan, uranio pobretua, minbizia, berotegi efektua, tabakoa, klenbuterola, arma kimikoak, desertizazioa, klonak, zentral nuklearrak... lehen bezala dago mundua, gaixo. Bonba atomikoak kolpean hiltzen zuen; hauek poliakiago, piskanaka.

Zientzia, naturak sortutako hondamendiak aurrez ikusteko eta egoki aurre egiteko erabili beharrean, natura hondatzeko erabiltzen bada, ez dago zer eginik. Aurrerapena, pentsamendua, zentzuna eta justizia, gizadiaren alde erabili behar dira. Duela urte batzuk esaten zuten, "mundua gelditu dezatela, nik jaitsi nahi dut eta". Agian posible zen hori, lehen, mantso zihoanean. Orain azkarregi doa mundua eta jaitsi arren, zapaldu egingo zaitu. Hala ere, ilusioz bizi direnei, baikorrei, Euskal Herria maite dutenei, umeak ekartzan dihardutenei, bi mila zorion eta musu bat. Pazientzia, osasuna eta askatasuna denontzat.<

«Balkanetan izan ziren militarrek osasun arazoak baldin badituzte, nola egongo ote dira uranio pobretuaren eragina zuzenean jasan zuten bosniarrak eurak?»

barruan



Mikel Andueza

Aita domingotarra. El Salvador

“Errepublika osoan eragin du lurrikarak. Hondamendia izugarria da El Salvadorren”

6.



Roman Muguruza

S. Antonetako antolatzaile ohia

“San Antoneko erromerixan asko ligatzen zan; orain ez da erromerixarik egoten”

13.



Iñaki Calvo

Txirindularia

«Espainiako zirklo-kros txapelketako zirkuitua ez zen niretako a proposena»

17.

hi, gazte!



BEKAK

Udan ikasteko bekak.
Frantzia eta Luxemburgo. Hainbat epe.
2001/2002 ikasturterako bekak.
Atzerriko Gaietarako Ministerioa.
Errusia eta Lieja (Belgika). Hainbat epe.

IKASTAROA / IKASKETAK

2001-02 ikasturteko Unibertsitatera Sartzeko Gidaliburua.
EHU-UPV. Datorren ikasturtean unibertsitatean ikasten hasi nahi duzenok, gidaliburuak eskuratu ditzakezue.
Argazkigintza. Sarobe.
Argazkigintza-zuzendaritzari buruzko 20 orduko ikastaroa. Epea: urtarrilak 29.

JARDUERAK

Oteiza. Kutxa.
Jorge Oteizaren sorkuntza-prozesuari buruzko erakusketa Kursaleko Kubo Aretoan. Epea: otsailak 28.

SARIAK

Kartel-lehiaketak.
Eibarko Udala. Hernaniko Udala. Epea: urtarrilak 26.
Logotipo-lehiaketak.
Huarteko Udala. Arrasateko Udala. Epea: urtarrilak 31.
Film. Baenako Udala. Film laburren II. "Casa de la juventud" lehiaketa nazionala. 14 urtetik 30 urtera bitarteko gazteen-tzat. Epea: 2001eko urtarrilak 31.
Literatura.
Sevillako Udala. Kontakizun argitaraga-beak, gai librekoak eta gaztelaniaz idatzia. Epea: 2001eko urtarrilak 31.
Bideo-lehiaketa eta Komiki-lehiaketa. Errenteriako Udala. Epea: 2001eko otsailak 1.

LAN ESKAINTZAK

Arkitektu teknikoak.
Hernaniko Udala. Epea: urtarrilak 22.
Estatistikoak.
Nafarroako Foru Aldundia. Diplomatuak edo arkitektu teknikoak. Epea: urtarrilak 23.
Artxiboa.
Nafarroako Foru Aldundia. Historia edo Filosofia lizentziatua. Epea: urtarrilak 31.

KARNETAK

Nazioarteko Aterpekide, Ikasle (ISIC), Gazte (IYTC) edo Irakasle (ITIC) karnetak eskuratzeko, zator Gazte Informazio Gunera.

INFORMAZIO GEHIAGO:

BERGARAKO GAZTE INFORMAZIO GUNEA: Kultura Etxeko bulegoa eta panelak, eta Irizar jauregiko panelak
Telefonoa: 943 77 91 57
E-mail: gzerbitzua@euskalnet.net
Osteguna eta ostirala: 16:00-20:00
Larunbata: 09:30-13:30

OHARRA. Bergarako edo inguruko elkarte, heziketa zentru eta enpresei eskertuko genizueke Gazte Informazio Gunera igortzea zuen ekintzen, ikastaroen, lehiaketen eta lan-eskaintzen informazioa, bertako gazteei nahiz probintzia guztikoei informazioa zabaltzeko. Mila esker.

bertako berbak


Juan Martin Elexpuru

Barkeske

Barkamena eskatzen.
– *Damutu jako ori neri esana ta barkeske etorri jat.*

Etorri, joan, egon... aditzekin erabiltzen da.

Barkaeske ere erabiltzen da.



San Juan auzoan jasotako datuak

hau giroa!

Luis Mari Agirre

	Temperatura maximoa	Temperatura minimoa	Euria
Abenduak 11, eguena	14 °C	10 °C	4,3 l/m ²
Abenduak 12, eguakitza	13 °C	3 °C	3,2 l/m ²
Abenduak 13, zapatua	12 °C	9 °C	1,9 l/m ²
Abenduak 14, domeka	8 °C	7 °C	0,2 l/m ²
Abenduak 15, astelehena	8 °C	5 °C	- l/m ²
Abenduak 16, martitzena	8 °C	2 °C	0,6 l/m ²
Abenduak 17, eguaztena	12 °C	4 °C	3,2 l/m ²

mezak

Santa Marina

Domekak: 11:30, 13:00.
Zapatuak: 19:00.
Lanegunak: 19:30.

San Pedro

Domekak: 09:30, 12:30.
Zapatuak eta lanegunak: 19:00.

Osintxu

Domekak: 11:30.
Zapatuak: 19:00.

Elosu

Domekak: 10:00.

Ubera

Domekak: 10:30.

San Juan

Domekak: 11:00.

Basalgo

Domekak: 13:00.

San Prudentzio

Domekak: 10:30.

URTE-MEZAK

Santa Marina

Hileko 2. astean, domekan 11:30ean.

San Pedro

Hileko 3. astean, domekan 12:30ean.

Labegaraieta

Domekak: 11:00.

San Lorenzo

Zapatuak: 20:00.

Angiozar

Domekak: 11:00.

Eguakitzak: 19:00.

Monja

Zaharrak

Domekak: 18:00.

Zapatuak eta lanegunak: 20:00.

Mizpirualde

Domekak: 11:45.

Zapatuak eta lanegunak: 11:45.

Antzuola

Domekak: 09:00, 11:30.

Zapatuak eta lanegunak: 19:30.

Uzarraga

Domekak: 10:00.

urbanoa

San Lorenzo/San Juandik irteerak

07:00, 07:40, 08:50, 09:40, 10:20, 11:00, 11:40, 12:20, 13:00, 13:30, 14:20, 16:00, 16:40, 17:20, 18:10, 19:00, 19:40, 20:20 eta 21:00.

GERALEKUAK: San Juan (Torunsa aurrean), Amillaga (Manso aurrean), San Lorenzo (Soraluze aurrean), Mugertza, Zubieta, San Martin plaza, San Antonio (Zumelaga aurrean), Martoko gainean, Zubiaurre, Ozaeta (Brunet aurrean), Labegaraieta (Ekonomatoan) eta Zabala jatetxea.

Labegaraieta/Olabarrenetik irteerak

07:20, 07:35, 08:30 (Olatik), 09:20, 10:00, 10:40, 11:20, 12:00, 13:05, 13:20, 13:50 (Olatik), 14:30 (Olatik), 16:20, 17:00 (Olatik), 17:25, 17:40, 18:30, 19:20, 20:00 eta 20:40.

GERALEKUAK: Labegaraieta, Ozaeta, Zubiaurre, Martoko, San Antonio, Espoloia (Mintegi), San Pedro, Arruriaga (Konde), Zubieta, Mugertza, San Lorenzo, Amillaga eta San Juan.

kontuan hartu...

FARMAZIARI

EGUAKITZA 19:
CAMACHO. Oxirondo 4. 943 76 11 74
ZAPATUA 20:
PUY. Barrenkalea 25. 943 76 16 87
DOMEKA 21:
PUY. Barrenkalea 25. 943 76 16 87
ASTELEHENA 22:
GUALLAR. San Antonio 5. 943 76 11 05
MARTITZENA 23:
ESTELLA. Matxiategi 5. 943 76 19 63
EGUAZTENA 24:
MOZOS. San Pedro 4. 943 76 12 15
EGUENA 25:
CAMACHO. Oxirondo 4. 943 76 11 74

OGIA

DOMEKA 21. Ogizun

TELEFONOAK

OSASUNA / LARRIALDIK
Anbulatorioa (txanda) 943 76 24 40
Bergarako aldaitzaingoa. 943 77 91 06
Antzuolako aldaitzaingoa 943 76 62 46
Ertzaintza. 943 76 53 40
Osasun Etxea 943 76 24 40
Angiozarko medikua 943 78 90 27
Antzuolako medikua 943 76 62 23
GARRAIOAK
Taxiak 943 76 19 50
UDALA
Bergarako udaletxea 943 77 91 00
Antzuolako udaletxea 943 76 62 46
Kultur Etxea 943 77 91 58
Liburutegia 943 77 91 62
Kiroldegia 943 76 56 41
Mizpirualde Egoitza. 943 76 13 68

BESTELAKOAK

Epaitegia 943 76 14 92
Erregistroa 943 76 13 15
Jardun 943 76 36 61
Idolaz 943 76 65 08
Jubilatuena Etxea. Bergara 943 76 21 40
Antzuolako jubilatuena elk. 943 76 62 71

ZOKZETAK

ETXEBERRIA ERLOJUTEGIA
200.000 pezetako balea. 0.102 zkia.
100.000 pezetako balea. 8.269 zkia.
ATHLETIC CLUB PEÑA
Saskia 844 zkia.
BATZOKIA
Musika ekipoa 1.470 zkia.
Saskia 3.137 zkia.
BEDELKAR
100.000 pezetako bono bana, zenbaki hauei: 43.259, 125.537 eta 67.861.
LOKATZA ZIKLISMO ESKOLA
Mendiko bizikleta 9.740 zkia.
Bi lagunendako afaria 2.207 zkia.

zorionak!



Erik Polanco
23an 8 urte.
Urte askotarako!
Familiakoak.



Ramon Polanco
25ean 39 urte.
Urte askotarako!
Familiakoak.



Maddi Aspiazu
22an 10 urte.
Zorionak!
Amatxi eta
etxeokak.



Olatz Basterra
20an 4 urte.
Urte askotarako eta
muxu handi bat!
Maddi.



Ainhoa Carazo
23an urtebetetzea.
Urte askotarako!
Etxeokak.



Aratz Zuazo
19an 3 urte.
Urte askotarako!
Jurgi, gurasoak eta
Tio Celso.



Elene Sasieta
22an 5 urte.
Urte askotarako!
Aita, ama eta
Ariana.



Matilde Ortueta
25ean 57 urte.
Urte askotarako!
Etxeokak.



Amaia Motoso
22an 2 urte.
Urte askotarako!
Ane eta gurasoak.



Paloma Nuñez
21ean 6 urte.
Urte askotarako!
Aitona-amonak.



Virtudes Fernandez
21ean 43 urte.
Urte askotarako!
Etxeokak.



Ines Iturriaga
24an urtebetetzea.
Urte askotarako
amama!
Saio eta Leire.



Beñat Uribesalgo
25ean 2 urte.
Mila kilo zorion!
Karmele eta
etxeokak.



Markel Garmendia
24an 3 urte. Urte
askotarako! Guraso-
ak, Marta eta Ayala.



Andoni Mujika
22an 2 urte.
Urte askotarako!
Etxeokak.



Julen Garmendia
19an 7 urte.
Urte askotarako!
Etxeokak.



Aitor Miner
24an 9 urte.
Urte askotarako!
Etxeokak.



Alexander Narvaez
21ean 17 urte.
Urte askotarako!
Etxeokak.



Juan Antonio Franco
19an urteak. Happy
birthday eta muxu
handi bat! A taldea.



Jokin Alfaro
24an 4 urte.
Urte askotarako!
Gurasoak eta Pejo.



Amaia Etxaniz
22an 2 urte.
Urte askotarako!
Gurasoak eta
familiakoak.



Ainhoa Bikuña
22an urtebetetzea.
Urte askotarako!
Aritz, Xabi, Paulo
eta Nerea.



Patxi Uribesalgo
19an urtebetetzea.
Urte askotarako!
Aritz, Xabi, Paulo
eta Nerea.



Juan Luis Bikuña
20an urtebetetzea.
Urte askotarako!
Aritz, Xabi, Paulo
eta Nerea.



BERRIGARA GIDA 2001 KALEAN DA

Profesional, lantegi, denda eta abarren telefonoak aurkituko dituzue Berrigara Gida 2001en, partikularrenekin batera. Gida etxean jaso ez baduzue eta eskuratzeko interesa izanez gero, deitu Berrigarara, 943 76 03 97 telefonora, edo pasa zaitzete erredakziotik bertatik (Irizar jau-regia: Barrenkalea, 33).

*Hurrengo alean,
urtarrilaren 26tik
otsailaren 1era
bitartekoen zorion agurrak
argitaratuko ditugu.*

Sukaldeko altzarien eta horma-armairuen fabrika



- Lantegiko prezioak
- Erakusleku handia: 2 solairu
- Kalitatea eta diseinua
- Nobedade denak

Kataide poligonoa, 6.pabilioia.
ARRASATE. 943 71 25 08

ESPOLON



School of English

INGELES IKASTARO BERRIAK
gazte eta helduentzat.
Trinkoak.
Maila denak.

Tf eta faxa 943 76 03 53
espolonschool@teleline.es



GAZTELU
BURDINAKI DENDA

Mintegi, 1 • Tf. 943 76 32 48 / 943 76 34 50 • BERGARA



Sukaldeak.
Horma armairuak.
Neurrira egindako
altzariak.
Ateak eta leihoak.
Arozlanak.

BERGARA ☎ 943 76 58 86

MIKEL ANDUEZA

Aita domingotarra El Salvadorren

«Errepublika osoan eragin du lurrikarak. Hondamendia izugarria izan da»

Mikel Anduezak 18 urte daramatza Hegoamerikan. Aita domingotarra da. Bestalde, ADIC Gobernuz Kanpoko Erakundearen egiten du lan. El Salvadorren bizi da azken hamalau urteotan. Joan zen zapatuan El Salvadorren zegoen lurrikara gertatu zenean. Berarekin hitz egin dugu lurrikararen ondorioak gertuagotik ezagutzeko.

G. Zein da egoera une honetan?

E. El Salvadorren une honetan eguerdiko ordubata da. Hor Bergaran arratsaldeko 8:15. Hambat gobernuz kanpoko erakundeekin egindako bilera batek heldu berri naiz bulegora. Heldu naizenean, bulegotik ziztu bizian atera behar izan dutela esan didate kideek. Izan ere, lurrikara nabaritu dute berriz. Nik ez dut sentitu autoz nentorrelako.


G. Egunotan behin baino gehiagotan izan dira lurrikarak.

E. Zapatutik gaur arte, hau da, hiru egun pasatxotan, 1.000 mugimendu inguru egon dira, nahiz eta batzuk nabaritzen ez diren. Gauz hiru edo lau sentitzen dira, eta ohetik salto egin eta kalera irten beharra izaten dugu, badaezpada.

Gertatutakoa oso gogorra izan da. Mitch hurakanaren zorigaitzotik ez gara irten eta lurrikara batean sartu gara. 13 urte besterik ez dira igaro 1988an El Salvadorren azken lurrikara gertatu zena.

G. Galerak zenbatekoak izan dira?

E. Oraindik ez dago hondamendiaren tamaina jakiterik. 40.000 etxebizitza suntsituta geratu direla esaten dute. Baina, 80.000 ere izan daitezke.



Mikel Andueza aita domingotar 14 urte daramatza El Salvadorren. ARTXIBOA

Hildakoei dagokienez, 600 lagun aipatzen dituzte. Hala ere, egunkari batek atzo zekarrenaren arabera, El Salvadorreko gobernuak 3.000 hilketxako donazioa eskatu du. Zein da, beraz, aurreikuspena?

G. Zein izan dira zonalde kaltetuenak?

E. Orain 13 urteko lurrikarak San Salvadorren era-

gin zuen batez ere. Hau orokorragoa izan da. Errepublika osoan eragin du. Etxe gehienak, gainera, adobazkoak dira. Ez dute lurrikararen mugimendua jasan eta milaka eta milaka familia etxerik gabe geratu dira. Mitch hurakanarekin etxea galdu zutenak baino familia gehiagok galdu dute lurrikararekin.

Eragina ez dute, baka-rik, Santa Teclako mailaertaineko familiek jasan, nekazari txiroenak ere ezer gabe geratu dira. Errepideak oraindik ere lurrez estalita daude, jendea azpian dagoela. Hitz bakarrean, hondamena.

Ekialdetik Mendebaldera, eta Iparraldetik Hegoaldera herrialde osoa hankaz gora dago. Hiriburuan ez dira eraikinak erori, baina kaltetuta geratu dira.

G. Zein laguntza duzue premiazkoen?

E. Presazkoena, komunitateetara janaria eramatea da: artoa, arroza, indabak, esnea, olio... Horren ondoren zink xaflekin egindako behin-behineko etxeak eraiki behar dira. Gutxienez bi edo hiru urte iraungo duten etxeak, behin betiko etxeak egiteko laguntza lortzen dugun arte.

Horixe da erabaki dugun lan ildo eta horretan arituko gara datozen urteotan.

G. Izan ere, ADIC erakundearen diharduzu lanean.

E. Bai, duela 14 urtetik. Gure indarrak Tacuba izeneko herrian jarriko ditugu. Guztiz txikituta geratu da. 30.000 lagun etxerik gabe geratu dira. Euskaditik jasoko dugun dirua Tacuba berreraikitzen erabiliko dugu. Horrela, bergararren bat inoiz herrialde honetara badator, bere laguntzaren zati bat hemen dagoela ikusiko du.

«600 hildako aipatzen dituzte. Gobernuak 3.000 hilketxa eskatu ditu medio baten arabera. Zein da, beraz, aurreikuspena?»

Santa Marina inguruko urbanizazio proiektuarekin aurrera doa Udala

Udalak Santa Marina parrokia inguruko proiektuaren idazketa eta obra zuzendaritzaren esleipena onartu ditu. Oxirondo plazako urbanizazio proiektua egina zegoen lehenagotik. Proiektu berriak, plazaz gain parrokia osteko aparkalekua ere aurreikusiko du.



Oxirondo plazarekin batera aparkalekua egokituko du Udalak.

ARTXIBOA

Joan zen asteleheneko osoko bilkuran, Santa Marina parrokia inguruko urbanizazio proiektuaren idazketa onartu zuten aho batez bertaratutako zinegotziek. Alderdi Popularreko zinegotzia ez zen bilkuran izan. Bestalde, obra zuzendaritza Andoni Sistiaga aparejadoreari esleitzea ere onartu zu-

ten, eta berak idatziko du proiektua. Esleipena 4.640.000 pezetan egin da.

OXIRONDO PLAZAREN OSAGARRI

Proiektu hori, udalak lehenagotik egin daukan Oxi-

rondo plazaren urbanizazio proiektuaren osagarri izango da. Lehenengo proiektu hark Oxirondo plaza konpontzea aurreikusten zuen: zolua egokitu eta banku eta argiak jarri. Izan ere, oso egoera kaskarrean dago.

Zapatutako merkatua ere bertan kokatzeko asmoa azaldu zuten Udaleko ordezkariak.

Proiektu berria zabalgoa da. Oxirondo plazaz gain, Santa Marina parrokia osteko aparkalekua egokitzea nahi du Udalak.

ZABALETAK KARGUAREN ZINA EGIN


Xabier Zabaletak zinegotzi karguaren zina egin zuen joan zen asteleheneko osoko bilkuran. Inigo Alberdik EAJ-EA koalizioaren zinegotzian artean utzitako hutsunea beteko du aurrerantzean Xabier Zabaletak. Bestalde, kirol batzordeburua ere izango da. Orain arte Nere Amaia Zabalak izan du ardura hori.

Hasi dira igerilekuak konpontzeko lanak

Egubakoitz goizean hasi ziren igerilekuak konpontzen. Aire girotua eta sabaia konpontzeko erabakia joan zen asteke eguen eguerdian hartu zuten udaleko ardura-dunek. Baliteke otsail amaiera aldera lanak bukatzea. Hala ere, beste astebe-

te beharko litzateke guztia garbitu eta ura berotu arte.

Aire girotuaren instalazioa eta sabaia konpontzeko aurrekontua milioi bat ingurukoa da. Konponketez gain, sarea jarriko da sabaian, segurtasuna areagotzeko asmoz.



Segurtasuna sendotzeko sarea jarriko dute sabaian.

Garnish

Bitxitegia

San Pedro 12 ☎ 943 76 03 57

LONBIDE
OINETAKOAK

Bidekurutzeta 5
BERGARA

☎ 943 76 10 57



SANTOS
IRRATI-TB

TELEFONIA MUGIKORRA
• SUKALDEKO ALTZARIAK •
ARGIZTAPENA

Masterreka 2. Tf. 943 76 26 10


Debagoieneko lehenengo jolasparkea Amillagan

Okipark izena izango du, eta 400 metro koadroko zabaleran umeak jolasteko guneak eta gurasoendako kafetegia egongo dira. Eki-mena pribatua da. Bi bergarrek jarriko dute abian: Esther Ruizek eta Jaione Lopezek, eta eurak esandakoaren arabera, martxo hasierarako zabalik egongo da.

Umeendako Debagoieneko lehenengo jolas parkea izango da, eta 110 umerendako tokia izango du. Arduradunen esanetan, hasieran Arrasaten irekitzea pentsatu zuten arren, Bergara zabaltzea erabaki dute: "Debagoien erdian dagoen herria izanik, leku estrategikoagoa dela iruditzen baitzaigu".

200 METRO JOLASERAKO

Bi eremu izango ditu: bate-tik, biltegia, kafetegia eta harrera bilduko dituen 200 m²; gainerako 200 m²etan umeak jolasteko gunea egongo da.



Hortxe kokatuko da jolas lekua, eta 110 umerendako tokia izango du.

Jolasetarako gune horretan, bi eremu banatuko dituzte umeen adinaren arabera: 0 eta 3 urte artekoendako bat, eta 3 eta 12 urte bitartekoendako beste bat. Txikien guneak 25 m² izango ditu, eta igerileku txiki bat eta beste hainbat jolas. Nagusiagoenak, berriz, 100 m² izango ditu, eta bertan, igerileku bi, ohe elastikoa eta beste hainbat jolas ipiniko dituzte. Bestalde, meriendak ere emango

dituzte, eta gune bat horretarako prestatuta egongo da. Zerbitzu berezi gisa, gurasoek seme-alabekin jolasteko egun bat egongo da.

Asteko zazpi egunetan egongo da irekita, goizeko 10etatik gaueko 9etara. Sarrerari dagokionez, ordubete 600 pta izango da. Hortik aurrerako orduak 450 pta. Meriendek 1.200 pta balio-ko dute, eta umeek arratsalde osoan egoteko aukera izango dute.

EAren ikurriña balkoitik lapurtu dute hirugarren aldiz

Astelehenetik martitzenerako gauean EA alderdiaren ikurriña lapurtu zuten ezezagun batzuek egoitzako balkoitik. Ikurriña lapurtzen duten hirugarren aldia da. EAK ekintza salatu du.

Aurten, 86 odol emaile gehiago

Guztira 1.453 lagunek eman zuten odola 2000. urtean, 1999an baino 86 gehiagok. Bestalde, Bergara izan da, 2000.ean, Deba arroan, odol-emate gehien egin zituen herria. Gipuzkoan bigarrena, Irunen atzetik. Gauzak horrela, Bergarako Odol Emaileen elkarteko arduradunek urtearen balantze oso positiboa egin dute. Gainera, urtetik urtera odol emaile kopurua handitu egiten da.

SEGUROS LAGUN ARO
ASEGURUAK

OHARRA BEZEROEI:

*Ramon Maria Liliko
bulegoan arazo teknikoak
ditugunez, aldi baterako
bulegoa BELANBIDE KALEAN
izango dugu. Ongi etorri, denok.*

BERGARA MARMOLERIA

PEDRO SALEGI OSA

Sukalde eta bainu enzimarak


Urarte 8 BERGARA
☎ 943 76 11 99 / 14 47.
Faxa: 943 76 04 77

AGENTEA



IRAEGI
ASEGURUAK

Telefonoak: 943 76 23 30
eta 943 76 41 54
Faxa: 943 76 41 54
ORDUTEGIA: Astelehenetik ostiralera:
9.00-14.00 eta 16.00-20.00



Kabutzia

ARRAINDEGIA

Fraiskozuri 6 Tf. 943 76 56 62



Irtenuneek 5 zentimetroko altuera dute, eta oraindik, proba moduan daude.

Abiadura murrizteko irtenuneak Matxiategin

Matxiategi kalean, hilerira joateko bidegurutzearen parean irtenuneak jarri ditu Udalak. Helburua oinezkoen segurtasuna handitzea da bidea gurutzatzeko orduan. Izan ere, Matxiategi kalea zuzen luzea da, eta

autoek abiadura handitzeko joera dute. Hori ekiditzeko jarri dituzte irtenuneak. 5 zm.ko altuera dute eta froga gisa jarri dituzte. Egokiak izanez gero, Zubietan, Aranerrek, Matxiategin eta Osintxun jarriko dituzte.

Mayc-eko langileen eskaerek erantzunik ez


Atzo, eguena, zortzi orduko lan-etena egin zuten, baita manifestazioa ere goizeko 11etan. Zuzendaritzarekin bildu diren arren, ez dute akordiorik lortu: lan-egutegia negoziatzea ezina da zuzendaritzaren ustez; ondorioz, langileek Preçora jo dute. Distribuzio berrien aplikazioa negoziatzeko asmorik ere ez du oraindik azaldu zuzendaritzak. Plangintza industrialak, aldiz, erdizka ezagutzera eman diete langileei.

Langileen batzordeak bilera du astelehenean, eta aurrera begira egingo dutena zehaztuko dute.



Langileek eguenean lan-etena eta manifestazioa egin zituzten.

Jokaldirik onena!



BERGARAKO UDAL EUSKALTEGIA MTRIKULALDIA ZABALIK

**Alfabetatze, euskalduntze eta
EGA ikastaroak (otsaila-ekaina)**

IZENA EMATEKO EPEA

urtarrilaren 22tik otsailaren 2ra
16 urtez gorakoendako

BULEGO ORDUTEGIA

goizez 08:30etik 12:30era
arratsaldez 14:30etik 18:30etara

**BEKATZE SISTEMA ETA
DIRU LAGUNTZAK DAUZKAGU!**

BERGARAKO UDAL EUSKALTEGIA

Zabalotegi, 13 • BERGARA • Tf.: 943 76 44 53
Posta elektronikoa: berg.eusk@udal.gipuzkoa.net

Berrigara

436 zenbakia.
2001eko urtarrilaren 19a.

Irizar jauregia. Barrenkalea 33.
20570 Bergara.
Telefonoa: 943 76 03 97
Faxa: 943 76 29 77
Posta elektronikoa:
berrigara@topagunea.com
Argitaratzailea: JARDUN Elkarte

Zuzendaria: Edu Mendibil.
Erredakzioa: Monika Belastegi,
Aintzane Irizar, Edu Mendibil.
Maketazioa: Iñaki Iturbe.
Publizitatea: Uxue Zabaleta.
Harpidetza: Nerea Lazpiur.
Testuen zuzenketak: Sergio Azkarate.
Erredakzio kontseilua: Eneko Azkarate,
M. Angel Elkorobereizabar, Alex Labaien,
Estepan Plazaola.
Komikiak: Unai Azkarate, Oihan Vega,
Usua Mendikute, Gorka Ortega &
Jon Alvarez, Bittor Rodriguez, Alex Ugalde.
Kolaboratzaileak: Luis Mari Agirre,
Antxon Agirre Sorondo,
Juan Martin Elexpuru, Gorka Ugarte.
Banaketa: Txantxangorri taldea.
Inprimategia: Gertu Koop. Elk.
(Zubillaga, Oñati).

Azaleko irudia: Gaztetxea/Berrigara.

Tirada: 5.400 ale.
Copyright: BERRIGARA.
Lege gordailua: SS 50/91.
ISSN: 1130-6599

BERRIGARAK ez du bere gain hartzen
aldizkarian adierazitako esanen eta
iritzien erantzukizunik.

Erakunde hauen laguntza:



Berrigarako
Udala



Gipuzkoako
Foru
Aldundia



Eusko
Jaurlaritzako
Kultura saila

atrebentzia ezpada

"Konekta zaitetz" kanpainaren diru laguntzak aprobetxatu eta ordenadoria erosteko asmorik badaukazu?



Harri Albisua

Gabonetan erosi dogu ordenadoria, promozioño hau aprobetxauta.



Manuel Moreno

Egixa esan, ez dot ezer be entzun kanpaina horren inguruan.



Ibai Gomez

Ez, guk ez dakagu ordenadoria erosteko dirurik. Gaiñera, badaukagu ordenadoria, beraz...



Amaia Martinez

Ez neukan ezer entzunda. Niregaittik erosiko neuke ordenadoria, baiña gurasuek ez dabe nahi.



Toñi Rodriguez



Etxian badaukagu ordenadoria, baiña ez eukitzekotan, aukera ona da horrelako laguntza bat.



Mikel Barragan

Orain dala bost bat urtetik daukat ordenadoria; dana dala, kanpaina hori aprobetxatu eta portatil bat erostia pentsatzen nabil.

tira biraka usoa mendikute



adituen esanetan

Konekta zaitez kanpaina

“Konekta zaitez” Kutzaren ekimenez sortutako kanpaina da. Horren bitartez, ordenagailuak erosteko diru laguntzak ematen ditugu. Iazko urrian abian jarri genuen. Geroago, Eusko Jaurlaritzaren eta beste hainbat erakunde finantzario lotu zitzaizkien ekimen honi. Beraz, eskaintza hau EAE guztira hedatu da. 2001. urte bukaera arte iraungo du promozio honek.

Oso erraza da diru-laguntzak lortzea, baldintza bakarra EAEko biztanlea izatea da. Ordenagailua erosi nahi duenak, kanpaina honetako partaide den edozein dendatarajo behar du. Bergaran, esaterako, ordenagailuak saltzen dituzten lau dendetako edozeinetara joan eta erosi dezake. Bertan kanpaina honetako dokumentuak edukiko dituzte. Behin dokumentuok beteta, Kutzara ekarri behar dituzte. Ordenagailua erosterako momentuan bertan egiten diote erosleari dagoen deskontua. Gero, Kutxa eta Eusko Jaurlaritzaren arduratuko dira komertzio horri diferentzia ordaintzeaz.

Eusko Jaurlaritzak 25.000 pezetako laguntza ematen du; Kutzak, berriz, 20.000 pezetako laguntza ematen die bere bezeroei. Baita 10 orduko ikastaro bat ere: Windows, Word, Internet eta Kutzaneti buruzkoa, hain zuzen ere. Horretaz gain, behar duenarentzat, 200.000 pezetako kreditu edo mailegu bat ematen du




PEDRO ABARRATEGI
Bergarako Kutzako zuzendaria

“Eusko Jaurlaritzak 25.000 pezetako diru laguntza ematen dio ordenagailua erosi nahi duenari; Kutzak, berriz, beste 20.000 pezetakoa”

Kutzak, 11 urtera ordaintzeko; hilean, 2.000 pezeta baino gutxiago.

Oraingoz, arrakasta handia izan du kanpainak, izan ere, guztira 45.000 pezetako deskontua lor baitezake erosleak. Bergaran bertan, dagoeneko 300 bat ordenagailu erosi dituzte diru laguntza honen bitartez.

Gure helburua, Gipuzkoa teknologikoki maila on batean jartzea da. Internet gero eta gehiago ari da erabiltzen eguneroko bizitzan. Gure bezeroek ere, duela gutxitik, Kutzanet zerbitzua dute, edozein operazio etxetik mugitu gabe egin ahal izateko. Eta, guk, jendeari lagundu nahi diegu, aurrerapen horiek guztiak eskura izan dezan.



Urte bukaera arte egongo da diru-laguntza hauek lortzeko aukera.

kaleen izenak



1982. urteko argazkia.

Komenio kalea

Gaur egun Komenio kalea dena, 1855ean ireki zen, eta 1856ko uztailaren 24an egindako osoko bilkuran kale berri honi “Calle del convenio” deitzea erabaki zen. Komenio izena jartzen zaio Kariistaldian Espartero eta Maroto jeneralen arteko bertsakada, hau da, “komenioa”, Bergaran izan zelako; eta horrela, gerra bukatu zelako. 1860tik 1863ra arte Komenio kalean oinbidea eta adokina jartzeko obrak egin zituen udalak. Antonio Urcelayk “Bergara” liburuan argitaratutako argazkian, Komenio kaleko bi aldeetan zuhaitzak agertzen dira.

Urteak pasa ziren eta Iñaki Unceta abertzalea alkate zela, 1922an, kaleari izena aldatzea erabaki zuten. Hala ere, eztabaida egon zen; zinegotzi batzuk izena ez aldatzearen alde azaldu ziren, baina besteen ustetan Bergarako komenioak ez zuen batere omenaldirik merezi. Azkenean, Luis de Elizalde izena jartzea eta egin beharreko plaka erdaraz eta euskaraz idatzita egotea erabaki zuten.

Errepublikara garai heldu zen 1931n eta Victor Ignacio Zubizarreta alkatearen proposamena ontzat eman zen, eta Komenio kaleari berriz izena aldatu zioten. Orduan, Sabino Arana y Goiri izena eman zioten.

Izen honek denbora gutxi iraun zuen, gerra piztu zelako. Berriz ere kaleari izena aldatzea erabaki zuten 1937ko irailaren 15ean egindako batzarrean, eta ordutik aurrera General Moscardo Ituarte deitu zen.

Azkenean, 1981tik indarrean dagoen kale izendegian, “Komenio kalea” jarri zioten berriz.

Testua: Arantzazu Oregi, Udal artxibozaina
Argazkia: BUAK utzia (Juan Idigoras fondoa)

BKEk eman du bere saria

Begarako K.E.k ere zozketa antolatu zuen Gabonak zirela eta. Eguaztenean eman zien euren saria irabazleei. Lehenengo saria, saski eder bat, **Martin Alberdiri** egokitu zitzaion, 29.325 zenbakidun txartelari, hain zuzen ere. Bigarrena, berriz, musika ekipo bat, **Ascension Nuini**, 03.764 zenbakiari. Zorionak, bada, bioi! Argazkian, sarituak Miguel Angel Sanz (ezkerrean) BKEko ordezkariarekin.



Zorionak, Felisa!

Felisa (behean, eskumatik bigarrena) **80 urte** beteko ditu bihar, zapatua. Hala ere, joan zen zapatuan ospatu zuen bere lagun koadrilarekin, **Altzasu elkarte**an bazkari eder bat eginez. Zorionak, Felisa, Altzasuko zure koadrilaren partez!

Lokatzak eman ditu sariak

Lokatza txirrindulari eskolak bizikleta bat eta afari bat zozkatu zituen Gabonetan. Lehenengo saria 9.740 zenbakidun txartelarentzat izan da, eta **Asier Alberdi** izan da irabazlea. Argazkian, Asier Alberdi saria jasotzen **Iñigo Igartua eta Pello Garitanoren** eskutik. Bigarren saria, berriz, Zumelaga jatetxean bi pertsonendako afaria, **Iñaki Albizurentzat** izan da, 2.207 zenbakiarentzat, hain zuzen ere. Zorionak, bada, irabazleei!



- L** Ikastaro teoriko trinkoak euskaraz eta gaztelaniaz
- L** Ziklomotorreko lizentzia astebetean. AZTERKETARIK GABE!
- L** Izena ematean, %10eko deskontua Gazte Txartelarekin

Gaundi ezazu autoaren azterketa teorikoa 16 urterekin!

LARRAÑAGA
A U T O E S K O L A

Tf. 943 76 16 63

Biko
BOKATEGIA
Simon Arrieta plaza 2A behea ezkerre.
Tf. 943 76 71 19

SAN MIGUEL zapatua, urtarrilak 20, 23:00etatik aurrera
jaia Eskatu bat eta...
bi edan

AZPEITXI

Aranerrek 13 behea ☎ 943 76 55 00

Jatetxea

kontuola

KONTUOLA, Idolaz elkarte, ANTZUOLA. Kazetaria: Marijo Deogracias, Ainhoa Ugarteburu **Publizitatea:** Uxue Zabaleta **Erredakzio kontseilua:** Miren Anduaga, Gotzon Iparragirre, Patxi Kortabarria, Jone Larrañaga **Testuen zuzenketak:** Maripi Laskurain, Lierni Legorburu **Telefonoa eta faxa:** 943 76 65 08, Herri ikastetxea.

Antzuolako hamabostekaria, 71. zenbakia. 2001eko urtarrilaren 19a.

Igerileku estali gabeak egingo dituzte


Osoko bilkurak estali gabeko igerilekuak egitea erabaki zuen

Urtarrilaren 11n egindako osoko bilkuran Antzuolako Udalak igerilekuen proiektua zeinek egin erabaki zuen. Luis Mari Zulaikak, Donostiako arkitektoa, lau hilabete izango ditu proiektu hori idazteko.

Antzuolako udalak azaroan atera zuen igerilekuak egiteko beharrezko proiektua idazteko lehiaketa. Epe barruan zazpi proposamen aurkeztu zituzten eta azkenengo osoko bilkuran zazpi horietatik bat aukeratu zuten udal ordezkariak. Luis Mari Zulaika donostiarraren proposamena, hain zuzen ere. Berak adierazi digunez, "Antzuola ez dut oraindik asko ezagutzen eta hemendik aurrerako lehenengo pausua herriaren berezitasunak ikusteko izango da". Izan ere, lau hilabete ditu Luis Mari Zulaikak proiektu hori aurkezteko.

BESTE ESPERIENTZIA BATZUK

Donostian bulegoa duen arkitekto honentzat ez da Antzuolako diseinatuko duen igerileku bakarra. Aurretik Astigarragakoa egin zuen. "Astigarragan, egin berri zuten kiroledegia ondoan nahi zuten igerilekua. Baina han estali gabea barik, aterpe antzeko bat egin genion. Eta Antzuolan ere kontuan hartu behar ko lukete aurrera begira ez ote den izango hobe horrelako zerbait aurrez ikustea. Kontua da, orain estali gabe egin arren, etorkizunean, probetxu gehiago ateratzeko edo uraren tenperatura mantentzeko edo azken batean, horrela erabakitzen delako, igerilekuak ixtea nahi izanez gero, hobe dela oraingo hori aurrez ikustea eta beharrezkoa den oinarriko azpiegitura oraingo proiektuan sartzeta. Hala ere, oraindik ez naiz hasi



Olaranen atzean egingo dira igerilekuak. VALEN MOÑUX

proiektuarekin eta gainera, lehenenik eta behin, udal ordezkariak asmoak ezagutzea izango da, eta baita herritarrek dituzten premiak ere".

Dena dela, Zulaikak argi dauka oso garrantzitsua dela ingurunea zein den jakitea eta ezagutzea. "Kontua ez da igerileku eder batzuk egitea eta listo. Igerilekuak non egongo lirakeen kontuan izan behar da eta horren arabera, inguruari hobeto egokitzen zaion instalakuntza egin".

Proiektua egiteko Luis Mari Zulaikak 3.944.000 pezeta izango ditu eta esan bezala lau hilabeteren bueltan aurkeztu behar du estali gabeko igerilekuen proiektua udaletxean.

IGERILEKUAK NON?

Olaran etxearen atzeko aldean aukeratu du udalak igerilekuak egiteko. Dena dela, oraindik lekua baino ez dute aukeratu zelako igerilekuak egin nahi dituzten eta proiektuari itxaron behar duog. ■

■ ■ ■
Lau hilabete barru aurkeztuko du arkitektoak igerilekuen proiektua
■ ■ ■

Independentzia Egun jendetsua

Azken urte hauetako ohiturari jarraituz, urtarrilaren 13an, zapatuan, Antzuolarron Independentzia Eguna ospatu zen. Eguerdiko 14:00etan bazkaritara joan baino lehen, herri-poteoa egin zuten trikitilariak lagunduta. Bazkalostean hainbat ekitaldiz gozatzeko aukera izan zuten bertan izan ziren guztiak: dantzariak, bertsolariak, eta baita "Beatles"ak ere; urte askoan elkarrekin jo gabe eta Antzuolara etortzea otu zitzaizen (John Lennon berpiztu zuten horretarako). Pilota parti-

dua ere jokatu zuten eta bikain aritu ziren herriko pilotari gazteak. Haren emaitza asmatzeko lehiaketa Nekane Idiakezek irabazi zuen.

Gaiteroek ere alaitu zuten bazkalostea eta Pako Aristi idazlea gaitero lanetan aritu zen Xabier Agirre antzuolarrarekin batera. Ondoan izan zuten, besteak beste, Patxi Saiz abeslaria ere.

Patatak errioxar erara jatera 180 lagunetik gora joan zen.



Beatles-ak Antzuolan.



Ia 200 lagun elkartu zen bazkarian.



Ikurrin dantzarekin hasi ziren bazkalosteko saioak.



Argiena, pilotarien familiakoa!

ANTZUOLA

Apainketak eta
isolamenduak
Pladurrezko dibisioak

Kalegoi 21 ANTZUOLA
Tf.: 943 72 30 05
Biltegia: 943 78 70 40

EGAÑA

Era guztietako arotz lanak

Tarima eta parketa jartzea
Zoruen kutxilatatu eta barnizatuak

Kalegoi 21, ANTZUOLA Tf.: 943 76 64 23

GOROSTI Taberna


☎ 943 76 62 96
Zurrategi plaza ANTZUOLA



Pilotari gazteek partidu bikaina jokatu zuten.



Kalean gora eta behera jotzeaz aspertuta, jarrita jo behar!



Azken orduko kontzertua ere antolatu zuten gaztetxean.

HIRUGARREN ADINEKOENDAKO GIMNASIA IKASTAROA

Antzuolan hirugarren adinekoendako gimnasia emango dute otsailaren 1etik aurrera. Astelehen eta eguenetan emango dute, arratsaldeko 5:30etik 6:30era. Izena emateko udaletxera joan beharko da. Horretarako azken eguna urtarrilaren 22a, astelehena, izango da.

EGUTEGIAK SALGAI

Urtero moduan Debagunek, Debagoieneko euskara elkarteak biltzen dituen elkarteak, egutegia osatu du. Egutegia Idolazko bazkideen artean banatu badute ere, aurten, bazkide ez diren guztientzat salgai dago herriko liburutendan. 400 pezetan erosi daitezke. Bailarako herri bakoitzeko leku jakin bat nola aldatu den aukeratu dute gai bezala, eta Antzuola, Bergara, Elgeta, Arrasate, Aretxabaleta, Eskoria-tza, Gatzaga eta Oñatiko irudiak bildu dituzte. Horrez gain, leku bakoitzeko jaien datak ere ikus daitezke.

INSERSOKO BAINUETXE PROGRAMA

Insersok bainuuetxetara joateko egitaraua aurkeztu du eta gizarte segurantzako erretiroa dutenei edo ezintasun pentsiodunei zuzendua dago, adina kontuan izan barik. Alarguntasuna edo beste pentsioren bat jasotzen egonez gero, edo 60 urte beteta izanez gero, joateko aukera dago. Egonaldi bakoitza 15 egunekoa izango da eta irailetik abendura joan nahi izanez gero, maiatzaren 12a baino lehen eman beharko da izena Bergarako erretiratuen etxean edo Antzuolako udaletxean. Aurreko betebeharez gain, kontuan izan norbere kasa moldatzea ezinbestekoa dela, eta baita bainuuetxeko tratamendua jasotzeko osasun oztoporik ez izatea ere. Informazio gehiago udaletxeko gizarte zerbitzuan jaso daitezke.

Igor eta Txomin



Margoak orokorrean

ANTZUOLA
609 157 131

BERGARA
609 150 164



Zabalo Iturgintza S.L.


Bidea eginez

Tailerra: Uzarraga bidea 10. Tf. 943 78 71 78

Erakusketa: Kalebarren 1. Tf. 943 78 71 79, Tf. eta F. 943 76 64 73

- Gasa
- Berogailuak
- Haize egokitua
- Enpresen mantenimendua
- Lurrin instalazioak

- Bero-aurrezteak
- Bainugelak. Proiektuak momentuan egiten ditugu DIBaren bidez
- Birgaitze-espedienteak bideratzen ditugu



Etxeen inguruko urbanizazioa beste enpresa batek egin behar du.

Etxe berriak otsailean estreinatuko dituzte

Urtarril bukaeran egongo dira etxe berrietako giltzak prest. Bada urtebete baino gehiago etxeak egiten hasi zirela, eta dagoeneko lanak amaitzear dira. Guztira 32 etxebizitza egin dituzte auzogune berrian, eta bizitzera joango direnek urtebeteko epea daukate bertara joateko. Egileen hitzetan "ia dena amaituta dago, lan berriaren adierazpena jadanik eskatuta dago, eta hilabete honen bukaeran eskriturak sinatzeko moduan egongo dira".

Etxeei dagokienez, bere egitura nagusian ez dute aldaketarik izan, ezta materialaren kalitateari dagokionez ere.

Egin diren aldaketek ez dute garrantzia handirik: sukaldea eta egongela batu dituzte, komuneko ateak aldatu eta sarre- ra egokitu dute. "Gainera etxeen eraikuntzan ez gara atzeratu, dena epeen barruan egin da, zerbait esatekotan, 15 egun atzeratu garela esan daiteke, baina ez da oso garrantzitsua. Prezioari dagokionez ere ez da aldaketarik egon".

Hala ere, eta etxeak ia eginda badaude ere, oraindik etxe inguruko lanak nahiko atzeratuta daudela azaldu digute, "baina lan hau ez dagokigu guri; beste eraikitzaile batzuen eskutan dago".


Hogeita hamabi etxebizitzako giltzak banatuko dituzte otsailaren hasieran

FRESKO-MURAL LEHIAKETA HUTSIK GELDITU DA

Antzuolako Udalak erdiguneko eskaileraren horma nagusian lan artistiko bat egiteko lehiaketa deitu zuen duela hilabete batzuk. Zazpi lan aurkeztu zituzten lehiaketara eta guztiekin erakusketa bat ere egin zuten udaletxean. Baina saria hutsik gelditu da. Udak ordezkariak saria inori ez ematea erabaki zuten. Baina, asmoa ez da bertan behera geldituko. Udaletxetik adierazi digutenez, "lehiaketaren oinarriak aldatzeko premian gaude eta hori egin bezain pronto, beste lehiaketa bat deituko da fresko-murala egin ahal izateko".

HIRUGARREN MUNDUAREN ALDE LAN EGITEKO LAGUNTZAK

Antzuolako Udalak Hirugarren Munduaren alde lan egiten dutenei diru-laguntzak eman dizkie. Azken osoko bilkuran erabaki zuten bi taldek jasoko zituztela laguntza horiek. Horietako bat Antzuolako GKEa da: ANELKAR. Bestea Oscar Romero Donostiako taldearentzat izango da. ANELKAREK milioi bat pezetako dirulaguntza jasoko du.



Canudosen ur potzuak egiten.

KALEGOI 19 ☎ 943 76 64 07

Tomas Gezalaga

ANTZUOLA BERGARA

- Zoruen kutxilatua eta barnizaketa •

GAILUR

taberna eta
gozotegia

Buztinzuri 13 ANTZUOLA
Tf. 943 78 70 32

LARREA

TABERNA

Kalebarren 17
ANTZUOLA

KALEGOI 19 ☎ 943 76 64 07

Tomas Gezalaga

ANTZUOLA BERGARA

- Apaintetarako eta industriarako pinturak •
- Paper margotuak •
- Moketak eta tapizatuak •

Gerra ondoren hasi eta orain dala bizpahiru urtera arte ibilli da San Anton jaixak antolatzen. Orain 80 urte dauzka eta Beheosin, jaiotetxian, bizi da. Garai bateko San Anton jaixak eta gaurkuak oso ezberdiñak dirala gogoratzen dau.

Noiztik ospatzen dira San Anton jaixak?

Nere akorduan, betidanik.

Ordutik hona aldatu dira jaixak?

Bai, asko, gaiñera.

Zelan gogoratzen dittuzu garai hartako jaixak?

San Anton egunian bertan lau bost-meza egoten zan, eta gero, erromerixia.

Askok ligatzen zan erromerixan?

Bai, baiña nik, behintzat, ez neban han nobixarik topau.

Eta gaur egunian?

Orain, ezer ez, erromerixarik be ez da egoten eta.

Jende asko juten da?

Bai, oraindik be jende mordua etortzen da jaixetan.

Bergarako zer jai gustatzen jatzu gehixen?

San Martiñak, giro politta egoten da eta kalian.

Gabonak gustatzen jatzu?

Orain, ez hainbeste; lehen, jende mordua batzen giñan etxian, baiña orain gutxi gara eta tristiaguak dira.

Zer moduz hasi dozu urte barrixa?

Ondo esan bihar.

Zer afiziño daukazu?

Bat be ez.

Aukeran, telebisiñua, irratixa ala egunkarixa?

Egunkarixa. Egunero irakurtzen dot.

Roman Muguruza

Zer da lehenengo irakurtzen dozuna?

Politika orrixak irakurtzia asko gustatzen jat.

Kirolzalia zara?

Bai; futbola gustatzen jat, baiña batez be pelotia.

Zeiñek irabaziko dau hasi berri dan biñakako txapelketia?

Nekeza da horri erantzutia, baiña bikote bat esatiarren, Retegik eta Errastik.

Eta futbolian, zer taldetako zalia zara?

Egixa esan, ja ez jat asko gustatzen; diru gehixegi mobitzen da gauza onerako.

Bizitzeko toki bat?

Oraintxe bizi naizena.

Euskal Herriko tokirik polittena?

Gaintza, esaterako, toki zoragarrixa da. Oñati be herri politta da.

Eta Bergarakua?

Elusu.

Urtaro bat?

Udabarrixa, oso alegria da eta.

Bazkari ideal bat?


Azia babekin eta txorixuakin.

Nahikua diru euki ezkeru, zer egingo ziñuke?

Nahikua loba dauzkat gastatzeko be.

Urte barrixari zer eskatu jatzu?

Osasuna, besterik ez.



ARDATZA

Brikolaketa

Ateak eta zokaloak

Horma armairuak

Sarrailak eta manilak

Koadroen enmarkazioak

Era guztietako moldurak

Apalak

Kajoiak

Masterreka 4 behea

☎ 943 76 18 93

Alkandorak1.000 pta.
 3 barruko elastikoa500 pta.
 3 kulero500 pta.
 3 galtzontzilo600 pta.
 2 body900 pta.
 Nikia800 pta.
 Jertsea1.500 pta.
 Pijama900 pta.
 3 slip400 pta.

Gallastegi
Jostundegia

San Pedro, 15 ☎ 943 76 10 85



*Gozogintzan
 aitzindari.*

Ekainean eman zien Udalak Kartzela Zaharreko lokal bat. Ordu-tik, gazte asko hurbiltzen da bertara, lagun artean egotera, bileraren batera... Urteak pasatu dituzte gazteek lokal baten eske. Hainbat mobilizazio ere egin dituzte, eta, azkenean, lortu dute. Hala ere, asko ei dago, oraindik, egiteko.

Duela lau bat urte, gazteen-dako bilgune edo lokal baten beharra zegoela ikusita, proiektu bat prestatzen hasi zen gazte talde bat. Gazte Asanblada ere sortu zuten, eta nahi izan zuten gazte guztiez gain, herriko 21 kolektibok ere parte hartu zuen bertan. Esan bezala, mobilizazio ugari egin dira lokal baten eske. Kontuak kontu, udalak Kartzela Zaharreko lokal bat eman die. Hala ere, gaur egun Jardun euskara elkarteak ere han dauka bere egoitza. Badirudi, Udalaren asmoa, Jardun elkarteari Santa Anako eraikinean lokala egokitu eta ematea dela. Nere Amaia Zabala kultura batzordeko buruaren esanetan, "oraingoz, asmoa besterik ez da hori; izan ere, proiektua hor dago, baina hori oso poliki doa. Dena dela, gazteek badute euren lokala eta nahiko ondo dagoela iruditzen zait".

GAZTEEK AURRERA EGIN NAHI DUTE

Gaztetxeko batzarreko kideak pozik daude lortutakoarekin. Euren esanetan, Iñigo Alberdik eta Mikel Egurenekin lan egokia egin dute, urteetan gazteei jaramonik ere ez egin eta gero. Baina, "oraingo lokala ez da nahikoa" euren ustetan. Gainera, ekainetik daude bertan eta eraberritze lanak noiz egingo dituzte itxaroten daude. Lehenbailehen eraberritzea eskatzen diote Udalari.



Gaztetxe

Herriko gazte guztiek irekita dituzte atepak

berria

TOKI-ONA
Bodegoia-taberna

Eguneroko janariak / Txitxizotzak
Kazolatxoak / Txabierroak

Matxiategi 1 Tf. 943 76 39 53

IRAHO

JATETXEA

OHARRA
Aurrerantzean,
domeketan itxita
egongo da.

Amillaga, 23, gasolindegia ondoan.
BERGARA
943 76 15 59

Mujika
goseologia

Berezitasunak:
Bizkotxoak
Erreilenoak
Tostoiak

Artekalea 3 **BERGARA** 943 76 10 34



ARTXIBOA



Gazte askok hartu zuen parte lokal bat eskatzeko mobilizazioetan.

Aretoa ere, Jardunekin konpartitu behar dute; "bertan zerbait egin nahi izanez gero, baimena eskatu behar diogu alde z aurretik Jarduni", gaineratu zuten. Udalarekin harremanetan jarraitzen dute Gaztetxeoak, eta momentu hauetan, aretoaren kudeaketa negoziatzen dihardute. Aretoa eta bertan dauden ziegak erabiltzeko eskubidea emango lieke udalak (Jardunek lokal berria duenean), baina Udalaren esku egongo litzateke horren kudeaketa. Gazteok ez daude konforme: "utzi diezagutela sei hilabetean aretoaren kudeaketa, froga modura, eta gero, har dezatela euren erabakia".

GAZTE GUZTIENTZAT, GAZTETXEA

Gaztetxeak irekita ditu bere ateak etorri nahi duen edozein gazterentzat. Tabernan egonaldi luzeak egiten ditu gazte askok, Gaztetxeo kideen esanetan. Horri alternatiba bat eskaintzen dio Gaztetxeak. Edozer egin nahi izanda ere, non eginik ez duenarentzat da Gaztetxea: direla hitzaldiak, dela irakurtzea, dela lagun arteko tertulia edo bileraren bat egitea. "Buruan ideia asko dituen jende ugari egongo da herrian, eta hemen, Gaztetxean, euren ideiak garatzeko toki bat daukate".

ZER EGITEN DUTE GAZTETXEAN?

Ireki zutenetik, era guztietako kontzertuak antolatu dituzte Kartzela Zaharreko aretoan. Hala ere, ez da hori izan egin duten bakarra. Hitzaldiak antolatu dituzte, antzerkia, ipuin-kontalariak; li-

burutegia osatzekotan ari dira, nahi duen guztiaren esku egongo dena; aste honetatik aurrera bideo emanaldiak izango dira eguazten iluntzero; aldizkari alternatibo bat argitaratzeko ideia ere badarabilte buruan...Ikusten da, bada, ez daudela, ez, geldi egotekotan.

BATZARRA OINARRI

Gaztetxearen funtzionamendua, batzar orokorrean oinarritzen da. Lokala bera lortu aurretik ere halaxe antolatu ziren euren aldarrikapenak egiteko, eta, orain ere, horrelaxe funtzionatzen dute. Eguakitzero, arratsaldeko 7etan egiten dute batzarra. Hogei-hogeita hamar lagun elkartzen dira, eta bertan hartzen

dituzte erabaki guztiak. Guztiz irekia da, herriko edozein gazte parte har dezake. Horrekin lotuta, zera adierazi digute: "herri guztiaren beharra dago Gaztetxea aurrera ateratzeko".

Taberna bat ere badute, eta hori da euren finantziabide nagusia. Asteazkenetik elkarrekin gastronomikoen antzera funtzionatzen du: bakoitzak nahi duena hartu eta jarrita dagoen itsulapiko baten sartzen du bere dirua. Asteburuetarako, berriz, taldeak eginda dituzte, eta baita egutegi bat ere, txandaka, bertan lan egiteko. Lokala garbitzeko ere sistema bera erabiltzen dute. Parte hartzea eta denen arteko kolaborazioa du oinarri gazte talde dinamiko honek.<

Gazte Asanbladakoak lortu dutenarekin pozik daude, baina oraingo lokala ez ei da nahikoa



laster zabalik

tatooarropaosagarriakoinetakoak... telesforo aranzadi, 2. 943 76 58 47

Senior mutilen saskibaloia taldea sailkapeneko zuloatik irten nahian

Bolsos Bergara saskibaloia taldeak Oiartzunen aurka jokatuko du bihar, zapatua, Mariaren Lagundian, 16:00etan.

Alex Familiarrek entrenatzen duen taldea sailkapeneko azken tokietan dago eta beharrezkoa du bihar partidua irabaztea. Lehen mailako liga probintzian 14 talde ari dira eta bergararrak 12. postuan daude. Bi partidua besterik ez dituzte irabazi eta gainerako hamarrak galdu egin dituzte. Aurreko jardunaldian Bergarak Goierri taldeari irabazi zion (71-77). Alex Familiar entrenatzailearen arabera, "Goierri gure arerio zuzena da eta garaipen oso inportantea lortu genuen aurreko astean. Oiartzun ere gu baino postu bat aurrerago dago



Artxiboko argazkian, joan zen denboraldiko partidua bateko irudia.

sailkapenean eta zuloatik ateratzeko partidua garrantzitsua da". Oiartzunen aurkako lehen itzuliko azken partidua izango da.

JARRAIPENA FALTAN

Gogoratuko duzuen bezala, Bergarako taldea lehen maila


autonomikotik lehen maila probintzian jaitzi zen joan zen denboraldian. Hala ere, mahoneroak ez dabilta batera ondo aurtengo ligan. Familiarren ustez, "ikasketatik edo lanetatik hainbat jokalarik entrenatzeko arazoak dituzte eta jarraipena

na falta zaigu behar den moduan lan egiteko, kontuan izanik gainera, taldean aldaketa asko izan direla. Hiru talde jaitziko dira mailaz aurreko ere, eta Oiartzunen kontrako partidutik aurrera gure onena eman behar harko dugu". Bigarren itzulian Bergaran zortzi partidua eta etxetik kanpo sei jokatuko beharko dituzte mahoneroek.


Nobedade gisa, zapatuko partidua Mariaren Lagundian jokatuko dute seniorrek. Familiarren hitzetan, "orain arte Kiroldegian jokatuko izan ditugu etxeko partidua, baina jokalariek Mariaren Lagundiko kantxan jokatze gogoia zuten eta horregatik aldaketa. Ea jendea animatzera etortzen den eta partidua aurrera ateratzen dugun".

Bergara-Tolosa eskubaloia partidua

Bergara eta Tolosako eskubaloia senior taldeak aurreko izango dira domekan, Labegarietako Kiroldegian, 11:00etan. Joan zen astean Ormaiztegi liderraren aurka etxean galdu ondoren, Edu Orgazek entrenatzen dituen mutilek igoera fasea jokatze gogorak galdu dituzte baina, Tolosari irabaztekoan, aurrealdean sailkatze borrokan sartu daitezke berriz.



Argitapen honen edizioko laguntzaile:

 **kutxa**

*gizarte-ekintza
obra social*



IÑAKI CALVO/ Txirrindularia

«Aurten ziklo-krosarekin probatzeko gogoia neukan eta positiboa izan da»

Iñaki Calvo (16 urte) bergararra 18.a izan zen domekan Nojan jokaturako Espainiako ziklo-kros txapelketan, gazte mailan, 60 bat partaideren artean. Lokatza taldean ari da Iñaki eta aurten aritu da lehenbiziko ziklo-krosean.

G. Zer moduz domekan?

E. Ondo, nahiz eta nik ibilbide aldapatsuagoak nahiago izan. Zirkuitua (2.600 metrokoa) oso laua zen eta, beharbada, beste era batekoa izan balitz, postu hobia lortuko nuen. Hala ere, ondo bukatu nuen proba eta pozik nago egindako lasterketarekin. Sei buelta eman behar izan genizkion zirkuituari, ibilbidea nahiko lokaztuta zegoen eta ondo aritu nintzen.

G. Zergatik erabaki duzu aurten ziklo-krosa egitea?

E. Beste urte batzuetan, neguan, korrika eta igeriketa tartekatuta izan ditut eta aurten ziklo-krosarekin probatzeko gogoia ne-

kan. Esperientzia positiboa izan da eta hurrengo urtean ere egingo dudala uste dut. Iñaki Arratibel tolosarrak jarritako entrenamendu plana jarraitu dut urritik hona, eta Iñigo Igartuarekin ere entrenatu naiz behin baino gehiagotan.

G. Zer erakutsi dizu Igartuak?

E. Esperientzia handia dauka ziklo-krosean eta, beste gauza batzuen artean, bizikleta bizkarrean zelan hartu eta saltoak gaintzeko gomendioak eman dizkit. Indarra beharrezkoa da, baina teknikak garrantzi han-

dia dauka eta, batik bat, hori hobetzen ahalegindu gara. Zigor Medinak eta Iñigo Larrañagak ere ziklo-krosa egin dute.

G. Ziklo-krosean ala errepidean ibiltzen zara gusturago?

E. Ziklo-krosean, beharbada. Berrogei bat minutuan guztia eman behar duzu; kirol polita da. Gustura ibili naiz orain arteko lasterketetan.

G. Noiz bukatzen da ziklo-kros denboraldia?

E. Hiru lasterketa gehiago izango ditut; astebukaeran Abadiñon eta Muxikan, eta azkena, datorren astean. Gero, atsedean hartuko dut errepide denboraldia prestatzeko.

G. Errepidean zelako txirrindularia zara?

E. Aldapan gora ibiltzen naiz ondoen. Neguan ziklo-krosean ibili naizenez, aurten hobeto ibiliko naizela uste dut.

G. Zenbat kilometro egiten dituzu urtean?

E. Iaz 7.000 inguru egin nituen eta aurten gehiago egitea espero dut.



karteldegia

FUTBOLA

Bergara-Ilintxa

Neskak. Zapatua. 16:00. Ipintza

Bergara-Ilintxa

Ohorezko kadeteak. Zapatua. 17:45. Ipintza

Bergara-Mutriku

Infantilak. Domeka. 11:30. Ipintza

ESKUBALDIA

Bergara-Tolosa

Senior mutilak. Domeka. 11:30. Kiroldegia

SASKIBALDIA

Bergara-Oiartzun

Senior mutilak. Zapatua. 16:00. M. Lagundia

emaitzak

FUTBOLA

Bergara 1; Amorebieta 4

Hirugarren maila

Urola 5; Bergara 1

Neskak

San Martzial 2; Bergara 0

Ohorezko jubenilak

Ilintxa 3; Bergara 1

Lehen mailako jubenilak

Bergara 0; Arrasate 0

Ohorezko kadeteak

Bergara 5; Aretxabaleta C 1

Bigarren mailako kadeteak

Eibartarrak 1; Bergara 2

Infantilak

ESKUBALDIA

Bergara 25; Ormaiztegi 30

Senior mutilak

Bergara 19; Urola 15

Jubenil mutilak

SASKIBALDIA

Bergara 62; Goierri 88

Kadeteak

Bergara 54; Beasain 62

Jubenil mutilak

Goierri 71; Bergara 77

Senior mutilak

Gaztetxoen arteko I. olinpiada Bergaran bertan!

Martxoaren 4tik apirilaren 8ra arte, domeka arratsaldetan

Sariak egongo dira!

Aurten, 6. maila, dbh 1 eta dbh2koek parte har dezakezue.

Taldeak: gutxienez 8 eta gehienez 10 lagunez osatuak izan beharko dira.



Prezioa: 500 pta laguneko. Jarduneko karneta dutenek doan.

Izena emateko: 943 76 36 61. Urtarrilaren 26ra arte Kartzela Zaharrean.



Labegaraietako futbito txapelketa

EMAITZAK

A MULTZOA

Bildurbarek-Bar Canalejas	5-3
Bar Ugarte-Eri	5-2
Apa Oxemai-Amoskibar	2-4
Pagomendi-Errotagain	0-3
Irubide-Torrekua	6-1

B MULTZOA

Vacalouras-Amilotx	1-6
Pinturas Bergara-Etengabe	5-3
Manitou-Aterpe	0-3
Cine Bank Irimo-Bayer	2-13
Kanpazar Harrobia-Ortzi	3-1

C MULTZOA

Artusamak-Mongatxurak	6-2
Ezinleike-A Ze Flaxa	0-3
Latex-Txipiron	2-4

PARTIDUAK

ZAPATUAN, BARRUAN

10:30: Mo(ko)lotov-Artusamak	Manitou
11:30: Apa Oxemai-Buya	Torrekua
12:30: Bar Ugarte-Torrekua	Apa Oxemai
18:00: Agirrebeña-Pinturas Bergara	Amoskibar
19:00: Irubide jatetxea-Amoskibar	Pin.Bergara

DOMEKAN, BARRUAN

9:00: Txipiron-Ezinleike	Cine Bank
10:00: Etengabe-Cine Bank Irimo	Txipiron
16:00: Aluminios Kresala-Agirrebeña	Fac
17:00: Canalejas-Fac	Bildurbarek
18:00: Bildurbarek-Errotagain	Pagomendi
19:00: Pagomendi-Eri	Errotagain

ARGI!

Manitou taldea kanporatua

Antolaketak Manitou taldea txapelketatik kanporatu du, bigarren aldiz partidu batera ez aurkezteagatik. Manitouko jokalariek ezin izango dute beste talderen batean jokatu eta euren aurkako emaitza guztiak baliokorik gabe geratu dira.

Ezinleike zigortuta

C multzoan, Ezinleike taldea ez zen aurkeztu A Ze Flaxaren aurkako partidua jokatzera, eta beraz, partidua galdutzat eman zaio; horrez gain, hiru puntu kendu dizkiote sailkapenean.

Torrekua, Cine Bank Irimo, Mongatxurak

Torrekua Irubide jatetxearen aurka galdu zuen (1-6). Cine Bank Irimok beste gol zaparrada bat jaso zuen (2-13) eta Mongatxurak galdu egin zuen (2-6).

Txipiron, Amilotx, Artusamak

Txipironek gora egin du sailkapenean Latexi irabazi ostean (4-2). Amilotx eta Artusamak taldeek Vacalouras eta Mongatxurak mendean hartu zituzten.



GORA eta BEHERA



SAILKAPENA

A multzoa

	P	J
1. Bar Ugarte	30	11
2. Bildurbarek Opel Lam	22	11
3. Errotagain	22	11
4. Bar Canalejas	22	11
5. Pagomendi	22	11
6. Amoskibar	18	11
7. Fac	13	10
8. Eri	12	11
9. Apa Oxemai	7	11
10. Irubide jatetxea	7	10
11. Buya	7	11
12. Torrekua	6	11

B multzoa

	P	J
1. Aterpe	28	9
2. Ortzi	24	9
3. Kanpazar Harrobia	22	10
4. Aluminios Kresala	17	9
5. Amilotx	16	10
6. Pinturas Bergara	13	9
7. Bayer	9	10
8. Vacalouras	7	10
9. Eengabe	4	9
10. Cine Bank Irimo	4	9
11. Agirrebeña jatetxea	3	8

C multzoa

	P	J
1. A Ze Flaxa	27	11
2. Mongatxurak	24	10
3. Artusamak	19	9
4. Komando Piperrak	19	10
5. Guadalest	18	10
6. Shaktale	13	10
7. Txipiron	7	9
8. Patxaran Team	7	10
9. Mo(ko)lotov	7	9
10. Ezinleike	6	8
11. Latex	-1	10

Informazio hau babesle hauei esker:



Irizar 2
☎ 943 76 14 95

JAUJA KIROLAK



OGIZUN
koop. elk.
okindegia

San Pedro 21 Zubillaga z/g
BERGARA OÑATI
943 76 20 49 943 78 24 13

Otsein Saria

Amorebietaren aurka jokalarik hauek nabarmendu ditugu:

Arkaitz Arana.....3 puntu
Josetxo Lizarralde.....2 puntu
Oskar Maiztegi.....1 puntu

Etzeko partiduak bakarrik hartzen dira kontuan.



Mariaren Lagundia Ikastolak, datorren larunbatean, urtarrilak 20, goizeko 11:30etik 13:30era, eta arratsaldeko 16:30etik 18:30era **ATE IREKI jardunaldirako gonbita egiten dizu.**

Haur Hezkuntzako antolaketa eta funtzionamenduaren azalpena: goizez, 12:30ean; arratsaldez, 16:30ean.

- Haurtzaindegian bisitak
- Tailerrak
- Ikuskizunak: Eriz magoa, 17:00etan

- Erakusketak
- Umeendako jolaslekuak
- Ikastolari bisita: ikasleen lanak, teknologia gela berria...

Mariaren Lagundia Ikastola. Espoioia, 1. Tel. 943 76 25 40.

G

Greskua

Tel.: 943 76 99 91
Matxiategi, 1-behea



- Zeramikak
- Gresa
- Gresitea
- Buztin egosia
- Pieza bereziak
- Eskuz eginiko esmalteztatuak
- Marmol zaharkitua
- Marmol konpaktua
- Harri naturala
- Harri landua
- Terrazoa
- Caravista



Azken joerak, kalitate handienarekin



MIGUEL ANGEL ELKORDIBEREZIAR

bonofotoa

Non dago Corellako Germinalek egindako mural hau: Bergarako komentu, taberna ala ikastetxe batean?

galde debalde

1. Zenbat odol emaile gehiago egon ziren Bergaran 2000 urtean 1999an baino?


- A- 86 odol emaile
- B- 68 odol emaile
- C- 89 odol emaile

2. Zein talderen kontra galdu zuen senior mailako eskubaloi taldeak aurreko jardunaldian?

- A- Tolosa
- B- Ormaiztegi
- C- Egia

3. Noiz jokatuko dira Jardunek antolatutako Gazteendako I. olinpiadak?

- A- Domeketan
- B- Zapatuetan
- C- Zapatu eta domeketan



Super BMk emandako 5.000 pezetako erosketa-bonoa zozketatuko du BERRIGARAK asmatzaileon artean!

Aurreko aleko saria **Maria Carmen Goienarentzat** izan da: 5.000 pezetako erosketa-bonoa. Zorionak Maria Carmeni! Galderen erantzun zuzenak hauek ziren:

Bonofotoa: **San Anton**

Galde Debalde: **1-A, 2-C, 3-A**

BONOFOTOA

GALDE DEBALDE 1: _____ 2: _____ 3: _____

Izen-deiturak: _____ Telefonoa: _____

Ekarri txartela **EGUAZTEN EGUERDIRAKO** Berrigarara! SARI EDERRA IRABAZ DEZAKEZU!

SOS arroza
paketea (500 gr.)
100 PTA!

Super BMn beti eskaintzarik onenak!

Itsasoan bizi izan zen 'Novecento' pianistaren istorioa Tanttakaren eskutik

Novedades aretoan izango da, gaur, egubakoitza, 22:30ean

Alessandro Baricco idazle italiarraren eleberriko argumentua du istorioak. Itsasontzi batean jaio eta inoiz lur hartu ez duen *Novecento* pianistaren istorioa kontatzen du. Lana monologoa da ia erabat, eta Jose Ramon Sorozek antzezten du, pianistarekin batera itsasoan dagoen tronpetariak. Pianoan Iñaki Salvadorek laguntza izango du.



Jose Ramon Sorozek antzezten du talentu gutxiko tronpetaria. TANTTAKA

'Novecento, Ozeanoko pianista' antzeztanak *Novecento* izeneko pianista apartaren bizitzaren berri ematen du; Virginia transatlantikoan jaio zen, XX. mende hasieran, Amerika eta Europa arteko ibilbidea egiten zuen itsasontzian, hain zu-

zen ere. Bidaia hura handiek, etorkinek eta alprojek egiten zuten. Marinelen artean hazia, *Novecento* ez zen sekula itsasontzitik jaitsi. Areago, ez zuen nortasun agiririk. Ez zuen aberrik, ez jaiotza datarik, ezta familiarik ere: ofizialki, ez zen inoiz jaio. Bere musika

besterik ez zuen; bere historia bezain zoragarria zen musika.

MUSIKA OINARRI

Tanttakaren lana deserti, inmigrazio eta adiskidetasunaren gaineko istorioa da. Baina, batez ere, musikaren ingurukoa. Esanahia: jotzen

duenari eta entzuten duenari gertatzen zaiona. Testuaren egitura literarioa ere musika-mugimenduz ziprztindurik dago. Ritornelloek, fugek eta doinuek bat egiten dute kontakizunarekin eta istorioaren gaiari euskarri formala ematen diote: musika.

Azken batean, pianista baten istorioa da, eta kontalaria, berriz, harekin itsasoaren musikan galdutako talentu gutxiko tronpetaria.

Jose Ramon Sorozek aktorea da talentu gutxiko tronpetaria (erdarazko bertsioan, Kide Diaz de Rada); *Novecento*, ostera, Iñaki Salvador eta Alexander Torres. Zuzendaritzaz Fernando Bernues arduratu da, musikaz Iñaki Salvador, eta euskarazko itzulpenaz Ritxi Lizartza.

Gaztetxoaren arteko I. olinpiadak antolatu ditu Jardunek

Jardunek, estreinakoz, Gaztetxoaren arteko I. olinpiadak antolatu ditu. Olinpiadak martxoaren 4an hasi eta apirilaren 8a arte izango dira, domeka arratsaldetan. Gaztetxoaren olinpiadak 6. maila, DBH 1 eta DBH 2 egiten ari diren neska-muti-

koei zuzenduta daude, hau da, hamaika eta hamalau urte bitarteko neska-mutikoei, hain zuzen ere.

Parte hartzeko, taldea osatu behar da, gutxienez zortzi eta gehienez hamar lagunekoa. Taldeak izena ere izan beharko du, eta tal-

dekideek blusa edo kolore bereko elastikoa jantzi beharko dute. Izena emanez gero, ekintza guztietan parte hartzea beharrezkoa izango da, bestela, olinpiadatik kanpo geratuko dira.

Izen-ematea 500 pezeta-koa da parte hartuko duen

kide bakoitzeko, eta Jardunek karneta duten gaztetxoendako, berriz, doan. Horretarako azken eguna urtarrilaren 26a da, Jardunek Kartzela Zaharrean duen egoitzan, edo 943 76 36 61 telefonoan. Sariak egongo dira.

MAYA



Matxiategiko lagunak, 1981

G arai baten herriko gazteak Seminarioan aritzen ziren futbolean eta, herriko txapelketak ez ezik, koadrilen arteko partidua ere hantxe jokatzen ziren. Matxiategiko lagun koadrila honek "Toledo memoriale", Agustin Toledo beraien lagunaren omenezko futbol partidua,

antolatu zuen 1981eko udan, eta argazkian agertzen direnek auzoko beste lagun batzuen kontra jokatu zuten. Sasoi hartan 17-20 urte izango zituzten. Hauek dira, ezkerretik eskumara, partiduaren atarian agertzen direnak:

Zutik: German Balanzategi "Kamel",

Aitor Uribesalgo, Fran Etxaniz eta Iñaki Azpiazu.

Jarrita: Roberto Nieto, Xabier Urrutia "Txurro", Patxi Palomares, Goio De Miguel (mutikoa, baloia eskuetan duena), Andoni Narbaiza eta German Azkarate.

Argazkia: Peli Narbaiza

ADI!

Argazki zaharren bat erakutsi nahi izanez gero, BERRIGARARA bertara ekar dezakezu. Irizar jauregian gaituzu, zatoz!



MEMESA

INDUSTRI HORNIDURAK

Tf. 943 71 24 25

ANE GARCES eta GORKA ELORTZA

olio eta lumatxo
erakusketa



NAHIKARI taberna

Masterreka 20
Tf. 943 76 57 71

Zuri Beltz margoak

Barnealde eta kanpoaldean erreforma,
pintura zerbitzu osoa eta moketak

943 76 14 60
607 447 494
943 76 59 59



umelaga

JATETXEA

58 urte zuen zerbitzura!

San Antonio 5 BERGARA ☎ 943 76 20 21


JOXAN
ARRAINDEGIÀ



Ibargarai 24
Tf. 943 76 70 29

Multieskaintzak

aurki itzazu!



**MONTURAK
BONARDI**

4.150 (24,94 €) PTA.



MONTURAK + KRISTALAK*
60 URTETIK AURRERA

8.900 (53,49 €) PTA.
-TIK AURRERA



MONTURAK + KRISTALAK*
G. TABACCHI

13.900 (83,54 €) PTA.
-TIK AURRERA



LENTE* MULTIFOKALAK

19.500 (117,20 €) PTA.
-TIK AURRERA



Eskaintza honek 01/02/28 arteko balioa du *Lente zuriendako eskaintza ± 4 ESF ± 2 CIL.

MULTIOPTICAS LARRAÑAGA

BERGARA
ARRASATE
ORDIZIA

R.P.S. N. 10499

ARREGI AROZTEGIA



SUKALDEAK

- Arozlan mekanikoak
- Ateak
- Horma-armairuak
- Tarimak eta Parketak
- Neoprenozko juntadun egurrezko leihoak
- PVCzko leihoak



Tailerra Urteaga, 20. 943 76 11 73 Erakusketa Bidekurutzeta, 38. 943 76 31 03

JAKINA

FAGOR altzarien Bergarako banatzaile bakarra



Zure etxeko sukaldea berritu eta altzariak jarri aurretik, zatoz Jakinara.

Diseinua, kalitate/prezio erlazio bikaina eta **saldu osteko zerbitzu** ezin hobea eskaintzen dizugu.

Jakina, zurekin pentsatzen



6 URTEKO
GARANTIA



Sukaldeko altzariak

JAKINA, bainugelak, zeramika eta sukaldeak

San Lorenzo Industri Poligonoa, Amillaga 10, behea. BERGARA.

Telefona: 943 76 03 30. Faxe: 943 76 02 91.